

# Euskal enplegu publikoaren legea euskara arloan aldatzeari buruzko akordioa

## 1. Xedea

Euskal enplegu publikoan euskararen erregulazioari buruzko ekimenen izapidetzearen esparruan, ikusirik ikuspegi ezberdinak dituzten bi lege-proposamen daudela, modu ordenatu, arduratsu eta erabilgarri aurrera egitea ahalbidetuko duen lan-bide partekatatu bat martxan jartzea adosten dute bi aldeek.

Zehazki, akordio honekin, EAJ-PNVk eta EH Bilduk honako konpromiso politikoak hartzen dituzte:

- 1) EAJ-PNVk bultzatutako lege-aldaketaren onarpena ahalbideratzea –EH Bilduk bere abstentzioarekin–, uneko egoeran erantzuteko bide egokia eta teknikoki zuhurra dela ulertuta, eta euskal administrazio publikoetan euskararen normalizazioari eta herritarren hizkuntza-eskubideen bermeari ekarpen eraginkorra egiteko helburuarekin.
- 2) Orain bide emandako lege-aldaketa horren hedapenaren, aplikazio praktikoaren, ondorio juridikoen eta benetako eraginkortasunaren jarraipen partekatua eta irizpide objektiboetan oinarritutako ebaluazioa egitea.
- 3) Horretarako, kontraste-, jarraipen- eta ebaluaziorako jarraipen-batzorde bat antolatzea, orain onartutako aldaketak segurtasun juridikoa indartzen, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen eta euskal herri-administrazioetako hizkuntza-plangintzaren aplikazio proportzionala, arrazoitua eta eraginkorra ahalbidetzen benetan laguntzen duen egiaztatzeko.
- 4) Akordio honetan zehaztutako ebaluazio-irizpideen arabera –akordioaren 7. puntua– orain bide emandako lege-aldaketak bere helburu nagusiak betetzeko egiturazko nahikotasunik ez duela ondorioztatuz gero, azterketa juridiko-politiko ordenatu bat abiaraztea euskal autogobernuaren berezko marko juridiko eta instituzionala indartzeko aukera emango duen proposamen berri bat lantzeko
- 5) Proposamena berri hori lantzerakoan oinarritzat hartuko dira bi hizkuntza ofizial dituzten beste autonomia erkidegoetako ereduak (adibidez, Katalunia edo Galizia), eta funts bezala hartuko dira, besteak beste, Euskadin metatutako esperientzia, euskal autogobernuaren marko juridiko eta instituzional propioa -bereziki une horretan indarrean dagoen estatutua-, euskararen normalizazioaren berezko arau-esparrua, errealitate soziolinguistikoa, Konstituzio Auzitegiaren doktrina, jurisprudentziaren bilakaera, eta euskal administrazio publikoen gaitasun elebiduna eta herritarren hizkuntza-eskubideak indartzeko baliagarriak izan daitezkeen bestelako erreferentziak.



## 2. Jarraipen-batzordearen izaera

Jarraipenak izaera politiko-teknikoa eta malgua izango du. Ez da organo formal gisa planteatzen, ez legebiltzar-batzorde gisa, ezta erabakitzeke ahalmen propioa duen instantzia gisa ere.

Alderdi arteko truke-gune egonkor bat izango litzateke, informazioa partekatzea, arazoak atzematera, legearen aplikazioaren bilakaera aztertzea eta, hala badagokio, etorkizuneko doikuntza posibleak identifikatu zein balizko lege-berrien lan-ildoak aztertzea bideratua.

Jarraipena leialtasunez, diskrezioz eta erabilgarritasun praktikorako borondatez garatuko da.

## 3. Parte-hartzaileak:

Alderdi bakoitzak erreferentziatzeko pertsona bat izendatuko du jarraipen arrunterako.

Pertsona horiek arduratuko dira aldian behingo kontaktua mantentzeaz, lauhilekoko bilerak prestatzeaz, landu beharreko gaiak antolatzeaz eta, bidezkoa denean, beharrezkoa izan daitekeen informazio teknikoa bideratzeaz.

## 4. Jarraipen-batzordearen helburuak:

Jarraipen partekatuak helburu nagusi hauek izango ditu:

- Onartutako lege-aldaketaren inplementazioa partekatzea.
- Erreformaren ezartzea aztertu, bereziki, lan eskaintzetan eta erakunde publikoetan aplikatzen diren derrigortasun-indizetan.
- Erreformat hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten oinarritze –motibazio– hobe lortzen laguntzen duen egiaztatzea.
- Euskal herri-administrazioek legea modu proportzionatuan, arrazoizkoan eta beren errealitate funtzional eta soziolinguistikora egokituta aplikatzeko irizpide aski argiak ote dituzten ebaluatzea.
- Hizkuntza-eskakizunekin lotutako litigiokotasunaren eta jurisprudenziaren bilakaera behatzea.
- Konstituzio Auzitegiak Euskal Enplegu Publikoaren Legearen hizkuntza-eskakizunen araubideari buruz emango duen ebazpenaren edukia eta ondorioak aztertzea, eta ebazpen horrek euskal arau-esparruan eta orain bide emandako erreforman izan dezakeen eragina aztertzea.
- Erreformat herritarren hizkuntza-eskubideen berme eraginkorrean aurrera egitea ahalbidetzen ote duen balioestea.
- Hala badagokio, disfuntzioak, hutsuneak, interpretazio-zalantzak eta arau-beharrak identifikatzea.

## 5. Lan-metodologia:

Lauhilekoko bilerek formatu arin eta operatiboa izango dute.

Oro har, bilera bakoitza puntu hauen inguruan egituratu ahal izango da:

- Legearen hedapen-egoera.
- Haren aplikazioan atzemandako gorabeherak.
- Erreforma ondorengo sektore publikoko entitateen planifikazio-tresnen nondik norakoen azterketa.
- Herri-administrazioek aplikatutako irizpideak.
- Lan-eskaintzen inguruan publiko egiten diren errekurtsio eta sententzien informazioa.
- Justizia esparruko bestelako epai edo intzidentzien informazioa.
- Behatutako ondorioen balorazioa.
- Hurrengo bilera baino lehen helarazi, aztertu edo berrikusi beharreko gaiak.

Bilkuren akta formala egingo da landutako gai nagusiekin, ebazteke dauden arazoekin eta hartutako lan-konpromisoekin.

## 6. Proposatutako egutegia:

Egutegiak legearen behin betiko onarpen-data hartuko du erreferentziazat.

### a) Jarraipenaren eraketa:

Legea onartu eta lehen hilabetearen barruan, lehenengo bilera eratzailea egingo da alderdi bakoitzak izendatutako pertsonen artean, honako hauek adosteko: erreferentziazko pertsonak; bileren gutxi gorabeherako egutegia; oinarritzko metodologia; jarraitu beharreko gai nagusiak; informazioa trukatzeko sistema eta lehen urteko lehentasunezko gaiak.

Bilera-egutegia zehaztuko da, baina egoerak hala eskatuta edo aldeetako batek hala proposatuta edozein unetan bildu ahal izango da jarraipen-batzordea.

### b) Onartu osteko lehen lauhilekoko bilera:

Helburu nagusia: Hedapenaren lehen urratsak egiaztatzea, argibide-beharrak identifikatzea eta hasierako interpretazio-zalantzarik ba ote dagoen balioestea.

### d) Hurrengo bilerak:

Lehen lauhileko bilera ondoren lau hilabetetik behin bilera egingo da dokumentu honetako 5. puntuko metodologiari jarraituz.

### e) Lehen urtearen amaieran:

Urteko bilera zabaldua. Izaera politikoagoa eta ebaluazio globalekoa izango du.

Alderdi bakoitzeko ordezkari gehiagok hartuko dute parte, eta, egokitzen jotzen bada, profil teknikoa duten pertsonak ere sartu ahal izango dira.

Helburu nagusia: momentu horretararte egindakoaren jarraipen orokorra, funtzionamenduaren ebaluazioa eta, hala badagokio, bigarren urtean lehentasunez jarraitu beharreko gaiak adostea.

Akordio honetan zehaztutako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuko dira lehen urte honetan, betiere eskuragarri dagoen informazio juridiko, administratibo eta jurisprudentzialaren arabera.

f) **Bigarren urteko lauhilekoko bilerak:**

Bigarren urtean jarraituko da lehen urtean zehar egin diren bileren dinamikarekin, dokumentu honen 5. puntuko metodologia jarraitzen, lau hilabetetik behin bilerak eginez.

g) **Bigarren urtearen amaiera:**

Bigarren urtearen amaieran, urteko bilera zabaldua egingo da. Izaera politikoagoa eta ebaluazio globalekoa izango du.

Alderdi bakoitzeko ordezkari gehiagok hartuko dute parte, eta, egokitzat jotzen bada, profil tekniko edo instituzionala duten pertsonak ere sartu ahal izango dira.

Bilera honen helburua jarraipen-aldiaren balorazioa egitea eta gai hauen inguruko ondorioak ateratzea izango da:

- Aplikazio-irizpideen finkapenean.
- Litigiokotasunaren bilakaeran.
- Herri-administrazioen erantzunean.
- Enplegu publikoko deialdien gaineko ondorioetan.
- Hizkuntza-eskubideen berme eraginkorrean.
- Konstituzio auzitegiaren ebazpenaren ondorioetan, ebazpen hori ordurako emana badago.
- Doikuntza osagarrien beharretan –edo ezan–.

h) **Hirugarren urteko lauhilekoko bilerak:**

Hirugarren urtean jarraituko da lehen bi urteetan zehar egin diren bileren dinamikarekin, dokumentu honen 5. puntuko metodologia jarraitzen, lau hilabetetik behin bilerak eginez.

i) **Hirugarren urtearen amaiera:**

Legea onartu eta hiru urtera ebaluaziorako bilera zabaldua egingo da. Bilera honen helburua jarraipen-aldiaren balorazioa egitea eta gai hauen inguruko ondorioak ateratzea izango da:

- Erreformaren helburuen betetze-mailari buruz.
- Segurtasun juridikoan izandako eraginari buruz.
- Hizkuntza-plangintza antolatzeke duen erabilgarritasunari buruz.
- Atzemandako zailtasunei buruz.
- Eta, hala badagokio, doikuntza normatibo edo aplikatibo berriak aztertzeke beharri buruz.

## 7. Ebaluazio-irizpideei buruz

Sistemaren eraginkortasunaren ebaluazioa irizpide objektibo, juridiko eta instituzionalen arabera egingo da. Ez da nahikotzat joko ebazpen judizial isolatuak egotea, irmoak ez diren pronuntziamenduak izatea edo administrazio jakin batek araua modu desegokian aplikatzearen ondoriozko gatazkak sortzea.

Lege-aldaketa berria eraginkorra izan den ala ez baloratzeko, gutxienez, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

### a) Konstituzio Auzitegiaren ebazpenaren eragina

Konstituzio Auzitegiak Euskal Enplegu Publikoaren Legearen hizkuntza-eskakizunen arabi-deari buruzko inkonstituzionaltasun-arazoaren inguruan ebazpena ematen duenean, bi aldeek haren edukia eta irismena aztertuko dituzte.

Azterketa horrek bereziki baloratuko du:

- Ebazpenak zer eragin duen euskal autogobernuaren berezko marko juridikoan, euskararen normalizazioaren arau-esparruan eta Euskal Enplegu Publikoaren Legean jasotako sisteman.
- Orain bide emandako lege-aldaketak, doktrina horren argitan, herritarren hizkuntza-eskubi-deak eta hizkuntza-plangintzaren segurtasun juridikoa bermatzen jarraitzeko duen gaitasuna.
- Euskal eredia indartzeko beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapen normatiboak.

### b) Jurisprudentzia irmo, anitz eta egiturazkoa egotea

Erreforma bere helburu nagusian egituraz nahikoa ez dela ondorioztatu ahal izango da soilik jurisprudentzia finkatu batek agerian uzten badu lege-esparru berriak ez diola behar bezala erantzuten konpondu nahi zen arazoari.

Horretarako, batera bete beharko dira honako elementu hauek:

- Epai irmo bat baino gehiago egotea.
- Epai horiek administrazio publiko desberdinei eragitea.
- Epai horiek erreforma indarrean sartu ondoren onartutako eta lege-esparru berriaren arabera egindako deialdi, prozesu edo erabakiei buruzkoak izatea.
- Deuseztapenaren arrazoi nagusia ez izatea motibazio-, espediente-, aurretiazko plangintza-, aplikazio administratibo- edo lanpostuaren justifikazio funtzionaleko akats zehatz bat, baizik eta lege-araudi berriaren egiturazko nahikotasun eza.
- Ez izatea interpretazio judizial isolatu, kontraesankor edo goragoko instantzietan finkatu gabe dagoen bat.

Ez da ulertuko erreformak porrot egin duenik administrazio jakin baten aplikazio-, motibazio-, justifikazio- edo espediente-akatsen ondorioz baldin bada.

### 8. Prozesuaren ebaluazioa, jarraipen eta itxiera

Ebaluazio prozesu hau amaitzerakoan, jarraipen arrunta amaitutzat eman edo ez erabakiko da, eta bi aldeek hura luzatzea edo beste lan-formatu batean bilakatzea komenigarritzat jo ahal izango dute. Bestetik erabaki ezean, jarraipen-batzordeak indarrean jarraituko du.

Jarraipenaren ondorioz egiaztatzen bada erreforma bere helburuak modu arrazoizkoan betetzen ari dela, bi aldeek haren garapena, aplikazioa eta hobekuntza teknikoa babestuko dute.

Aitzitik, 7. puntuari jasotako irizpideen arabera ondorioztatzen bada lege-esparru berriak egiturazko nahikotasunik ez duela, akordio honen 1. ataleko 4. eta 5. puntuetan jasotako konpromiso politikoa aplikatuko da.

Akordio honek ez du baldintzatuko normalizazio linguistikoa babesteko eta garatzeko alderdi politiko desberdinen artean etorkizunean adostu daitezkeen beste akordioen edo arauen gauzatzea.



**Joseba Díez Antxustegi**  
EAJ/PNVren izenean



**Pello Otxandiano Kanpo**  
EH Bilduren izenean



**Markel Olano Arrese**  
EAJ/PNVren izenean



**Josu Aztiria Urtaran**  
EH Bilduren izenean

*Gasteizen, 2026ko ekainaren 24an.*